

infraganti ROUS BOISIER

Ozeano Atlantikoa zeharkatu eta Durangon aurkeztu du Rous Boisier txiletarrak «Pérdida» goiburua duen argazkigintza proiektua. Gaixo duen amaren buruan gertatzen ari zena interpretatzeko saiakera artistikoa da Begira Photo jaialdian jarri duen erakusketa. Obraren aurrean jesarrita, proiektu artistiko eta sendagarriaz aritu zaigu.

Rous Boisier (Temuco, 1985) Txiletik datorkigu eta “Pérdida” goiburua duen argazki sorta ekarri du besazpian. Durangon egin dugu hitzordua, ekainaren 10etik 29ra bitarte bertan ospatzen den Begira Photo jaialdian jarri baitu bere erakusketa.

Ozeano Atlantikoa zeharkatu eta ezezagunen aurrean ireki behar izan du bere eskola Boisierrrek, lan benetan intimoa eta pertsonala ekarri baitu Durango museoaren paretetara: gaixo duen amaren buruan gertatzen ari zena interpretatzeko saiakera artistikoa, hain zuzen ere.

Boisierren ama, 53 urte inguru zituela, inoiz gainditu ez duen depresio batean erori zen. «Defentsak jaitsi eta hor hasi zen bukaerarik gabeko dekadentzia», azaldu digu hunkituta. Etxera bueltatu eta ama zaintzean jarri zituen energiak Boisierrrek. Amaren makulu zela sortu zen egitasmoa. “Zergatik ez irudikatu amak bizi duen egoera hau?” ideia bere buruan piztearekin batera ekin zion lanari. Prozesu luzea izan da, urte eta erdi ingurukoa. Hasierako irudiak, gainera, ez zituen baterere gogoko izan. «Oso zakar eta bistakoak ziren, zuri-beltzean eginak eta erabat mingarriak. Minek egindakoak ziren, eta nahi baino ageriago jartzen nuen bai nire ama bai neure burua ere. Morbo-soegiak ziren nolabait esateko, eta hasieratik baztertu nituen», ekarri du gogora.

Proiektua bera sendagarria izan da txiletarrantzat, izan ere, mina beti bidelagun izango zuela ulertu, eta, onarpenarekin batera, Rous bera aldatu egin zen. «Nolabaiteko heldutasun bat eskuratu dut denbora tarte honetan, egoerak bere horretan

jarraituko zuela ulertu eta onartu ostean, egoeraren jabe egin eta hura gobernatzen ikasi nuen», dio konbentzimenduz. Argazkigintza proiektuak ibilbide bera egin du eta Rousek eta amak partekatutako prozesu intimo horren lekukoa jaso du.

BURBUILAN SARTZEKO SAIAKERA

Bereziak dira oso obrak biltzen dituen lanak. Batetik, familia albumetik berreskuratutako amaren argazki zaharrak daude. Zuri-beltzean, denboraren testigu isilak. Eta bestetik, Rousek berak ateratakoak. Kolorea dute, baina kolorearen indarra galdu egiten da atmosferan. «Ama, nolabait esateko, burbuila batean bizi da, eta nire lanarekin burbuila horretan sartu nahi izan dut», azaldu digu.

Teknika berezia erabili du estetika eta kolore bitxiak agertzeko. Etxeko armairu batean aspaldi ahantzitako argazki kamera zaharra da teknikaren oinarria: «Bisorea goialdean du, eta nik nuen kamera digitala kamera horren gainean muntatu nuen. Finean –laburbildu digu– kamera zaharraren erreflexuaren irudia da kamera digitalarekin hartzen nuena».

Ez zen prozedura xamurra izan, baina, lortutako emaitzarekin maitemindu, eta argi ikusi zuen hura zela aspalditik bilatzen ari zen proiektua. «Hasieran zapi baten atzetik ikusten nuen egoera, ondoren konturatu nintzen, ordea, ama zela burbuila lauso horretan bizi zena. Harentzat barruko mundua da garrantzia duen bakarra, kanpoa ez da existitzen, eta teknika horrekin hori islatu nahi izan dut», azaldu digu.

Durango Arte eta Historia Museoko lehen solairuan bi paretan artean banatu ditu lanak. Ezkerraldekoak zuri-beltzean egin-



Apurka ama berbak nahasten hasi zen, gauzak ahazten, bizitzaren zentzua galtzen. Bere barnean murgildurik zegoela, ama ulertzen eta zaintzen saiatu nintzen. Agudo egin zuen okerrera

“

‘Pérdida’ argazkigintza proiektuak amaren mundua esploratzen du, barnekoetik eta egunerokotik, egotetik eta ez egotetik

dakoak dira denak; familia albumekoak dira eta guztietan amak irribarrez agurtzen du objektiboa. Pare pare daude Rousek berak ateratakoak: gehienetan bizkarrez agertzen da ama, kameraren aurrean paratzeko gauza ez dela. Amak lurrean ezarri ezin dituen oin biluziek edota hartu nahi ez dituen pilula txikituek osatzen dute lana. Eta argazki guztien erdian amaren erretratu bat, Boisierrren ama izan zen pertsona hura gogora ekarri nahian. Kokalekuaren zergatiaz galdetu diogu: «Nik ez nuen ezkerreko paretako emakume hura ezagutu, ni jaio aurreko irudiak dira denak. Parean dagoena, aldiz, nik ezagutzen dudana da, ama izugarri on hura», azaldu digu hunkituta.

“Pérdida” du lehen lana eta Begirada jaialdiak eman dio jendaurrean ipintzeko lehen aukera. Azaro inguruan Granadan izango da ikusgai, baina, gaur-gaur-

koz, ez du bestelako erakusketarik hitzartuta. Museoetan eta galerietan erakusketa jartzeari ez dio uko egingo, baina oraindik ez du argi hori denik “Pérdida” lanarentzat erakustokirik aipose. Liburu edo ikus-entzunezko batean ere badu burua.

HARRA BARRURAINO SARTUTA

Berandu ekin zion argazkilaritzari Rous Boisierrrek. Ikus-entzunezko komunikazioko ikasketak hautatuta, bertan izan zuen kamerarekin lehen kontaktua, argazkilaritzako ikasgaian, justuki. Atzera begiratuta badaki klase haiek ez zirela aparteko ezer, baina nahikoa izan ziren argazkilaritzaren harra barruraino sartzeko. Ama arte irakaslea zuen, eta, berandu izan arren, herentzian hartu zuen bere alde artistikoa.

Argazkilaritzan egindako ibilbide ia guztia bakarrik ibili du. Behatzen eta elementuei arreta

Krisia? Zeren, noren krisia?

Joseba
Otondo

Erregimenaren krisia Nafarroan, estatu ereduaren eta lurralde krisia Ebro hegoalderat... Azken hamarraldietako trantsizio-ondoko egitura politikoa dardarka omen dago, kinkan.

Alta, balizko lurralde eta politika krisi hori ematen den aldi berean herritarren bizi baldintzen makurtze orokorrarekin bat, adierazle desberdinek aberastasunaren pilaketa handitu dela diote. Irudi luke erregimenaren aitzinaldea dela zartatzen eta arrailtzen ari dena, zeren boteregune ekonomikoak sendo irauten baitu. Egitura ekonomikoari ustelkeria eta iruzurra- ren palastak ez dio sobera eragiten eta kapital pilaketa aldi berriaren oinarriak ere ezartzeko gai izan dira: lan eta pentsioen erreformak, mozketak, bankuen erreskateak... Oligarkia ekonomiko-finantzarioa bere klase programa franko aise aitzinarazten ari dela ematen du.

Baldintza horietan erregimenaren krisia eta horren egiazko arrakala zenbaterainokoa den jakitea ez da erraza. Eta herritar sufritu- en ikuspegitik egoera krisi termino hutsetan aztertzea arriskutsua izan daiteke. Nafarroako Ubideak edo AHTren lanek diru publikoa- ren xahuketak jarraitzen duela erakusten dute. Nafarroako Kutxa- ren desagerpenaren faktura politi- koa nolakoa izan den ez dakigu, baina Kutxabanken pribatizazioan pausuak emateko ez zaie eragoz- pen iruditu. Zerga iruzurragatik zi- gortutako enpresariak kiratsa da- rien proiektuak sustatuz darraite, eta, horretarako, Nafarroako Go- bernuak Udalez Gaindiko Plan Sektorialen makulua erabiltzeko arazorik ez du, Gendulain adibide.

Jendeak etorkizun hurbilari dion beldurra, kronifikatutako langabe- zia aski kontuan hartzeko bizi-ego- erak dira. Ubidearen kostuak ez du haserrealdirik piztu, nahiz haur es- koletarako dirurik ez duela gazti- gatu Gobernuak. Negozioek eta txantxulloek segitzen dute. •



ipintzen. Txileko Kultur Kontsei- luari esker Kubako San Antonio de lo Baños hirian hilabete eman zuen formatzen, eta orain ere Txileko sorkuntza artistikoa eza- gutzera ematea xede duen beka bati esker dago gure artean.

Gustura asko dago Euskal He- rrian eta egonaldia irailera bitar- tean luzatu eta zukua atera nahi dio. Aurrerantzean zertan aritu- ko den ez du argi, baina Leo Si- moes argazkilariaren ondoan ja-

«Pérdida» lanaren hainbat irudi, lan osoa Durangoko Begira Photo erakusketan dago ikusgai.
Rous BOISIER

rraituko duela badaki. 2013an Txilera egin zuen bidaian ezagu- tu zuten elkar. “Madre tierra” maputxeei buruzko argazkigin- tzako proiektua garatu zuen ber- tan Simoesek. Txileko herri indi- genari buruzko argazkigintzako proiektu horren osagarri narra- tiboa izan nahi duen “Somos” film laburrean buru-belarri da- biltza orain elkarrekin. •

oihana.llorente@gaur8.info